



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO UZTAILAREN 17AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Josune Estella Arranzek eta Irene Gartzia Palaciosek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/07/10EKO BILKURA.

Batzarkideek, 2018ko uztailaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- MUNALURRA KALEA 8 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0591

MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-75126730) ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileak, Munalurra kalea 8 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 166.991,46 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 736,17 €
	Fidantza (%120): 883,40 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko apirilaren 17an ALDEKO txostena eman du.


Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2018ko uztailaren 6an emandako 2018/0787 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H-75126730), Munalurra kalea 8 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 20,54 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako



Usurbilgo Udala

administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2018ko uztailaren 6an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaen xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-75126730) ordezkartzan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileari, Munalurra kalea 8 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 736,17 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (883,40 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

883,40 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.04/2014-0591" jarriaz kontzeptuan.



Usurbilgo Udala

- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.
- Iñaki Tanco Hualde arkitektoak 2017ko uztailean (EHAE0 2017-10-05) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 20,54 m²-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goitizterik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu, eta bereziki ondokoak:
 - Sarrerako atearen 2 aldeetan gutxienez 1,4 m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
 - Igogailuaren sarreraren aurrean 1,5 m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
 - Igogailuaren kabinak gutxienez 1,00 mx1,25 m-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 0,80 m-ko pasabide libre.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira eta eskaileran eskubarandak jarri.
 - Eskailera tramu berriek 1,0 m-ko gutxienezko zabalera izango dute.
 - Igogailurainoko korridoreak gutxienezko 1,1 m-ko zabalera izango du.
 - Igogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengoa bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.



Usurbilgo Udala

- Etxebizitzen handitze guneek egungo etxebizitzaren sestra mantendu beharko dute.
 - Elementu berriaren kanpotiko akaberak, Udalak onartutako Oinarrizko Proiektuan finkatutakoak eta halaber, jada egikaritutako Munalurra 20an egin den igogailu obra berrian ezarritako berak izan beharko dute, etxadiaren konposizioa mantentzearen.
 - Orohar, igogailuak eraikinean etxebizitzak kokatzen diren solairu guztietara eman beharko du zerbitzua.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berriazko baimena lortu beharko da.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
 - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

3.- JOSE MARIA UCIN, S.A. ENPRESARI HAASETAKO A-29 (ZELAI HANDI) EREMUAN ENPRESAK DUEN LANTOKIAN LABE ZAHARREKO KE ISURKETAK BEHAR BEZALA JASO AHAL IZATEKO, ESTALKIAREN ZATI BAT ALTXATZEKO ETA MANTENU LABEAREN KANPAI BERRIA, TXIMINI BERRIA ETA FILTRO BERRIAK JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2018-0234

JOSE MARIA UCIN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuan enpresak duen lantokian labe zaharreko ke isurketak behar bezala jaso ahal izateko, estalkiaren zati bat altxatzeko eta, mantenu labearen kanpai berria, tximini berria eta filtro berriak jartzeko udal baimena eskatzen du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	313.571,07 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 850,00 €
	Fidantza (%120): 1.020,00 €.

INGURUMEN BAIMEN BATERATUA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak, 2018ko apirilaren 13an, zera jakinarazi zuen: kanpai berria jarri eta estalkia haunditzea, txatarra biltegi berria egitea, tximinia berritzea eta filtro eta airezgarilu berria jartzea jarduera baimen bateratuaren aldaketa EZ esanguratsuak direla.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, zein udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, ALDEKO txostenak eman dituzte.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren jakinarazpena eta udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: JOSE MARIA UCIN, S.A. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuan enpresak duen lantokian labe zaharreko ke isurketak behar bezala jaso ahal izateko, estalkiaren zati bat altxatzeko eta, mantenu labearen kanpai berria, tximini berria eta filtro berriak jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:



Usurbilgo Udala

- Jon Arratibel Uranga industri ingeniari teknikoak 2018ko ekainean (V0711/2018) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Egikarituko diren kanpai eta estalki berriak ITXIAK izango dira, proiektuaren mantenu labeko emisioen bilketa hobetzeko eta emisio barreiatuak gutxitzeko helburua betetzea bermatuz.**
- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 850,00 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.020,00 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.020,00 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2018-0234*” jarriaz kontzeptuan.
- Aldaketa guztiak barneratzen dituen Jarduera Proiektu Eguneratua aurkeztu beharko da bertan jarduera ezarri aurretik.
- Ezinbestean bete beharko dituzte Eraikin Industrialetan Suteen Babeserako Neurrien Erregelamendua, hala nola, indarrean den gainontzeko araudi aplikagarria.
- Uneoro aplikaziozko araudia bete beharko da.
- Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnizazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.



Usurbilgo Udala

- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
 - Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZETAN GARBIKETA ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATU ERRESERBATUAREN ESLEIPENA.



Usurbilgo Udala

Esp. zk.: ID.05/2017-0544

IKUSIRIK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urtarrilaren 30eko bilkuran, prozedura irekiaren bitartez kirol instalazioen garbiketa zerbitzu kontratu erreserbatua esleitzeko kontratazio espedienteari hasiera eman zion.

Lizitazio iragarkiak DOEU, BOE eta GAO n argitaratu ziren eta interesatuek beraien proposamenak aurkezteko apirilaren 17ra bitarteko epea izan zuten. Epe horretan, bi enpresa aurkeztu ziren, Gureak Garbitasuna SLU eta Integra Mantenimiento Gestión y Servicios Integrados CEE SL.

2018ko apirilaren 27ko Kontratazio Mahaian, A eta B kartazalak ireki ziren.

2018ko ekainaren 11ko Kontratazio Mahaian Kirol Teknikariak B gutun-azaleko memorien balorapen txostena aurkeztu zuen eta ontzat eman zen.

Ondoren, C gutun-azalak ireki eta eskaintzak aztertu ondoren, mahaikideek ontzat eman eta Tokiko Gobernu Batzarrari proposamena luzatu zitzaion.

2018ko ekainaren 19an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki zuen puntuaketa altuena zuena Gureak Garbitasuna SLU zela eta enpresa honi jakinarazi zitzaion 10 egun balioduneko epean behin betiko bermea eta oinarri administratiboetako 14. klausulan zehazten ziren agiriak aurkeztu zitzaizala.

Emandako epean, Gureak Garbitasuna SLU enpresak aipatutako agiriak aurkeztu ditu eta baita behin betiko bermea ere. Hau horrela, 2018ko uztailaren 11ko Kontratazio Mahaiaren proposamena kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Gureak Garbitasuna SLU-ri esleitzea Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzua emateko kontratua, prozedura ireki bidez, eta 2018 urteko aurrekontuan %21eko BEZ barne 52.638'55 euroko gastua onartzea, 1.4300.227.34.0001 kontu-sailaren kontura (A/28-2018)

BIGARRENA: Gureak Garbitasuna SLU-ri jakinaraztea kontratua helegite berezirako idazkia aurkezteko epea igaro ondoren sinatuko dela.

HIRUGARRENA: Kontratua sinatu ondoren formalizazio hori udaleko Kontratatzailaren Profilean, GAO n, DOUEn eta EAOn argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Gureak Garbitasuna SLU, Integra Mantenimiento Gestión y Servicios Integrados CEE SL, Kirol saila eta Kontu-hartzailatza sailari ematea.



Usurbilgo Udala

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.